

ARRAKASTA programa: babes-sistematik ateratzen diren gazteek unibertsitate-ikasketak aukera-berdintasunean egiteko giltza

(ARRAKASTA Program: the key to achieve university studies in equal opportunities for young people who come out of the protection system)

Joana Miguelena*, Paulí Dávila, Luisma Naya, Joxe Garmendia

Hezkuntza Zientziak Saila (UPV/EHU)

LABURPENA: Hamabost urtetan bete beharreko Garapen Iraunkorreko Helburuak markatu dizkigu Garapen Iraunkorreko 2030 Agendak; haietako bat, hezkuntza. Hezkuntzak guztiontzako eskubide bat izan behar du, kalitatezkoa, inklusiboa, bidezkoa eta etengabe ikaskuntzarako aukerak eskaintzen dituena. Artikulu honek hezkuntzari lotutako garapen iraunkorreko helburua azaltzen du; zehazki, helburu horren hirugarren erronkari helduko dio, hezkuntza-eskubidean eta goi mailako hezkuntzari dagokion aukera-berdintasunean sakonduz. Horretarako, UPV/EHUK arrakasta akademikoa lortzeko bultzatutako Arrakasta programa aitzindaria erabiliko dugu eredu gisa. Programa horrek haur eta nerabeen babeserako eta gizarte-inklusiorako sistemen barruan dauden gazteek unibertsitatean sartzeko eta goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzeko aukera izateko baldintzak sortzen ditu. Artikulu honetan, programa hori martxan jartzeko prozesua, garapena eta bertan parte hartzen duten ikasleen pertzepzioak jasotzen dira. Parte-hartzaileen lehen pertzepzioek argi uzten dute beren goi mailako ikasketen «blindatzea» baino haratago doala programa; izan ere, itxaropenak sortzen ditu, babes-sisteman artatutako haur eta nerabeen eta agenteren ikuspegi, itxaropen eta zerumugak aldatzen ditu, eta, garrantzitsuen, hezkuntza inklusiboa eta aukera-berdintasuna bermatzen ditu.

HITZ GAKOAK: hezkuntza, hezkuntza-eskubidea, aukera-berdintasuna, kalitatezko hezkuntza, hezkuntza inklusiboa.

ABSTRACT: Agenda 2030 has set out the objectives to be met over the next 15 years in order to achieve sustainable development, among these are those related with education. Education must be a right for all people, as well as being of quality, inclusive, fair and uninterrupted throughout life. This article explains the objectives of Agenda 2030 related to education, focusing on the right to education and equal opportunities in higher education. To this end, the ARRAKASTA programme promoted by the UPV/EHU is used as a model. This programme seeks the protection and social inclusion of children and adolescents, as well as the entry of young people into university and the successful completion of higher education. This article covers the implementation, development and perceptions of the students involved in this program. Participants' initial perceptions make it clear that this program goes beyond the «shielding» of their higher education, creating expectations, breaking the boundaries of children and adolescents cared for in the protection system, and changing the perspectives, expectations and horizons of different agents, and most importantly, guaranteeing an inclusive education.

KEYWORDS: Education, Right to Education, Equal Opportunities, Quality Education, Inclusive Education.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Joana Miguelena, Hezkuntza Zientziak Saila. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (UPV/EHU). Tolosa Hiribidea, 70 (20018 Donostia, Gipuzkoa. Euskal Herria). – joana.miguelena@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-7467-1291>.

Nola aipatu / How to cite: Miguelena, Joana; Dávila, Paulí; Naya, Luisma; Garmendia, Joxe (2021). «ARRAKASTA programa: babes-sistematik ateratzen diren gazteek unibertsitate-ikasketak aukera-berdintasunean egiteko giltza»; *Ekaia*, ale berezia 2021, 73-90. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22108>).

Jasotze-data: 2020, urriak 05; Onartze-data: 2021, abenduak 15

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Azken bi hamarkadetan, nazioarteko agendek agerian utzi dute jendarteak egun dituen arazo handiak konpontzeko konpromiso bateratu eta adostu baten premia larria [1]. 2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda sortu zuten, garapen iraunkorrerako 17 helburu biltzen dituenak. Bestalde, helburu bakoitzak argi markatzen ditu datozen hamabost urteetan lortu beharreko helburu edo erronka espezifikoak [2]. Artikulu honetan, garapen iraunkorrerako laugarren helburuari (GIH) buruz arituko gara, unibertsitate-jardueraren ardatz nagusia den heinean: hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan zehar ikasteko aukerak sustatzea denentzat. Estu-estu lerrokatuta, GIH horretan, hamar erronka espezifiko aurreikusi dira, baina, ekarpen honetan, hirugarren erronkari helduko diogu batik bat, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa —unibertsitateko irakaskuntza barne— berdintasunez eskuratu dezaten bermatzea, UPV/EHUK arrakasta akademikorako sustatu duen Arrakasta programaren azalpenaz baliatuz eta aztergai dugun GIHarekin uztartuz.

2. HEZKUNTZA-ESKUBIDEA ETA GOI MAILAKO HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Hezkuntza, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan txertatutako GIHen artean laugarren helburua izateaz gain, bizitza eta garapen iraunkorra hobetzeko oinarria da. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzeaz haratago, tokiko biztanleak hornitzen laguntzen du hezkuntza inklusibo eta ekitatibo batek, munduko arazo handienei irtenbide berritzaileak emateko beharrezkoak diren erremintak eskainiz. Hori horrela, nazioarteko erakundeek hamarkadak daramatzate hezkuntza-eskubidea giza eskubide guztien erdian kokatzen. Baina zer da hezkuntza-eskubidea? Katarina Tomaševskik planteatutako «4 A-k» eskemari jarraituz, eskubide hori bermatzeak hezkuntza eskuragarria, irisgarria, onargarria eta moldagarria¹ izatea ekarriko luke [4, 5]. Hala-ber, aipatu behar da eskubide horrek biderkatzaile gisa funtzionatzen duela: pertsonen eskubide eta askatasun guztiak indartu, norberaren gaineko kontrola eman, eta bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean parte hartzea errazten du [6, 7]. Dena dela, ez dugu ahanzi behar, beste edozein eskubide bezala, ez dela modu berezitu eta isolatuan ulertu behar, eskubi-deak elkarren mendeak eta zatiezinak baitira [8, 9].

Hezkuntza pertsona guztientzako eskubide ukaezin bat izateaz gain [5], zaugarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeen kasuan, faktore babesle

¹ *Avaliability, Accesibility, Acceptability, Adaptability.*

gisa jokatzeko dute hezkuntza-moldagarritasunak eta arrakasta akademi-koak [10, 11, 12, 13]; esate baterako, landa-eremuko eta talde minoritarioetako haur eta nerabeen kasuan, edo dibertsitate funtzionalen bat dutenen kasuan [9]. Talde horietako gutxi iristen dira goi mailara.

Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, goi mailako hezkuntzari dagokionez, urteak dira hezkuntza-eskubidean urratsak eginez eta aukera-berdintasuna bermatzeko aldera goi mailako hezkuntzari dagozkion lege eta iniziatibak hasi zirenetik. Unibertsitatean zentratuz, laguntza ezagunena ikasketen tasak ordaintzetik salbuetsita egoteari dagokiona da. Halako neurriak kolektibo jakin batzuen desberdintasunak arintzeko sortzen dira. Gurean, UPV/EHUn, unibertsitate-tasa ordaindu beharrik ez duten taldeak haur eta nerabeen kasuan: familia ugariak, terrorismoaren biktimak izan diren familiak, desgaitasunen bat duen pertsonaren bat duten familiak, genero-indarkeriaren biktimak izandakoak edo asilo-eskatzailak (eskaria izapidetzeko onartu bazaie), nazioarteko babesaren onuradunak eta aberriak. Talde horietan daudenak, beraz, salbuetsita daude laguntza horretan araututako prezio publikoak ordaintzetik, baldin eta maila bereko unibertsitate-titulurik ez badute [14].

Eusko Jaurlaritzak tasak ordaintzetik salbuetsitako kolektiboen zaurgarritasuna zabaldu jarri gabe, badaude «lekurik» ez duten hainbat kolektibo; babes-sistematik ateratzen diren gazteen kolektiboa, kasurako. Kolektibo hori behartuta dago 18 urte betetzean babes-sistemak egoitza-harrerak uztera, eta «berehalako heldutasun» ezezagun batera bideratzen da [15, 16, 17], konplexutasunez, zailtasunez eta desabantailaz bete da [18, 19, 20]. Errealitate hori oso bestelakoa da adin-tarte bereko gazteen artean, zeinetan emantzipatzeko unea gero eta gehiago atzeratzen den [21, 18, 22, 23]. Espainiako Gaztaroaren Institutuaren (INJUVE) arabera, Espainiako gazteak emantzipatzeko batez besteko adina 29,5eko da; babes-sistematik ateratzen direnena baina 11 urte gehiago, alegia [24].

3. HEZKUNTZA-ESKUBIDEA ETA GOI MAILAKO HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Gehienok ez gara harritzen harrera-egoitza batean babestutako haur edo nerabe bat ikasle txarra dela esaten digutenean. Hala ere, orain dela gutxi arte, zientifikoki ezer gutxi jakin dugu kolektibo horren hezkuntza-eremuari buruz. 2010. urtera bitartean, soilik Erresuma Batuk jasotzen zituen haur eta nerabe horien hezkuntza-eremuko datuak modu sistematiko batean [25, 16]. Azken urteetan kolektibo horren hezkuntza-eremua aztergai izan duten ikerketek agerian utzi dute hezkuntza-erronka asko eta nabariak dituztela [26], are gehiago populazio normalizatuare-

kin² alderatzen baditugu; esate baterako, emaitza kaxkarragoak izaten dituzte [27, 28, 29], ehuneko txikiagoa egon ohi da adinaren arabera legokiokeen ikasturtean, ehuneko handiago batek errepikatzen du, edota eskola-absentismo tasa altuagoa dute [27, 30, 31, 32, 29].

Gipuzkoan, 2017ra bitartean ez dira modu sistematikoan aztertu babes-sisteman artatutako haur eta nerabeen hezkuntza mailari eta hezkuntza-ibilbideei buruzko datuak [33]. Araban eta Bizkaian ere oraindik jasotzeke daude datu horiek (2021). Aztertutako lehen ikasturtea 2015/2016koa izan zen, eta azkena, 2018/2019koa. Lortutako emaitzek beste azterlanek ondorioztatutakoa berresten dute: hezkuntza-eremua babes-sistemaren erronka nagusienetakoa da [18, 34, 33, 35].

Datu batzuk mahaigaineratuz [35], 2018/2019 ikasturtean, oro har, adin-tarte bereko EAEko³ ikasleriaren egokitasun-tasa⁴ askoz ere altuagoa zen maila guztietan Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) harrera-egoitzan artatutako haur eta nerabeenarekin alderatuz.⁵ 1. taulan, xehe-tasunez ikus daitezke egokitasun mailan ageri diren ehunekoen arteko desberdintasunak. Deigarria (eta kezagarria) da bi taldeen artean dagoen desberdintasun nabaria, bereziki 15 urteetan. Adin horretan, harrera-egoitzetan artatutakoen % 14,5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) laugarren mailan matrikulatuta daude, hau da, dagokien mailan. Aldiz, EAEko adin berekoen arteko ehuneko nabarmen altuagoa da maila horretan: % 74.

Bidenabar, jarraian aurkezten den taulan ikus daitekeen bezalaxe (1. taula), EAEko ikaslegoaren joera berari jarraituz, harrera-egoitzetako nesken egokitasun maila handiagoa da mutilenarekin alderatuz, baina ez da EAEko ikaslegoaren egokitasun mailara iristen (are gutxiago EAEko nesken egokitasun mailara).

² Artikulu honetan, normalizatutzat joko dira babes-sistemaren barruan bizi diren edota bizi izan diren haur, nerabe edo gazteak.

³ Azterketa konparatiboa egin ahal izateko EAEko datuak Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak emandakoak dira: Eustat (2020) http://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_2321_in10.px/table/tableViewLayout1/?rxid=0678e46c-66c7-44f2-bb6a-1393b34db399#axzz4o1c9uyuJ..

⁴ Egokitasun-tasa: beren adinerako irakasmaila teoriko egokian matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa.

⁵ Ikerketa horretako lagin osoa 317 haur eta nerabek osatzen dute, denak GFAko harrera-egoitzetako zenbait programatan artatutakoak, unibertsoaren % 97,8. Programaren ezaugarri bereziengatik, larrialdiko harreran dauden haur eta nerabeak ez dira laginaren parte.

1. taula. Harrera-egoitzetako eta EAEko haur eta nerabeen egokitasun-etaula. 2018/2019 ikasturtea.

2018/2019	EAEko ikasleak	2018/2019	Harrera-egoitzetako ikasleak
7 URTEREKIN			
Euskadi	% 96,4	Harrera-egoitza (n=7)	% 71,4
Mutilak	% 95,9	Mutilak (n=4)	% 75
Neskak	% 97,0	Neskak (n=3)	% 66,7
9 URTEREKIN			
Euskadi	% 92,1	Harrera-egoitza (n=16)	% 37,5
Mutilak	% 91,4	Mutilak (n=7)	% 28,5
Neskak	% 93,0	Neskak (n=9)	% 44,4
11 URTEREKIN			
Euskadi	% 89,5	Harrera-egoitza (n=11)	% 36,4
Mutilak	% 87,5	Mutilak (n=10)	% 40
Neskak	% 91,3	Neskak (n=1)	% 0
12 URTEREKIN			
Euskadi	% 87,7	Harrera-egoitza (n=15)	% 40
Mutilak	% 86,1	Mutilak (n=7)	% 28,6
Neskak	% 89,4	Neskak (n=8)	% 50
13 URTEREKIN			
Euskadi	% 84,2	Harrera-egoitza (n=26)	% 33,3
Mutilak	% 81,5	Mutilak (n=14)	% 28,6
Neskak	% 87,1	Neskak (n=11)	% 45,5
14 URTEREKIN			
Euskadi	% 79,6	Harrera-egoitza (n=31)	% 19,4
Mutilak	% 76	Mutilak (n=22)	% 16,7
Neskak	% 83,5	Neskak (n=19) Ez-binarioa (n=1)	% 11,1 % 100
15 URTEREKIN			
Euskadi	% 74	Harrera-egoitza (n=55)	% 14,5 ohiko ibilbidea ¹ % 21,8 OLHZko ² 1. maila
Mutilak	% 69,2	Mutilak (n=36)	% 13,9 ohiko ibilbidea % 15,8 OLHZko 1. maila
Neskak	% 79,2	Neskak (n=19)	% 58,3 ohiko ibilbidea % 41,7 OLHZko 1. maila


¹ Ohiko ibilbidetzat hartzen dugu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila. Bestela ere, taulan jasotzen den bezalaxe, Oinarrizko Lanbide Heziketako lehen mailan matrikulatuta daudenak ere nabarmentzen ditugu.

² Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroak.

Errepikapen-tasari dagokionez, harrera-egoitzan artatutako haur eta nerabeena EAEko haur eta nerabeena baino handiagoa izan zen, bai Lehen Hezkuntzan (% 7,6 artatuen artean eta % 2,2 EAEko haurren artean), baita Bigarren Hezkuntzan ere (%15 artatuen artean eta %5,7 EAEko nerabeen artean).⁶

Osatzen dituzten ibilbide akademikoei dagokienez, zenbait ikerketak agerian utzi dute unibertsitatera heltzen den ehunekoa bereziki txikia dela eta ibilbide akademiko profesional eta motzak lehenesten dituztela [10, 13, 35, 28, 36]. Literatura zientifikoarekin bat egiten dute gure datuek. Gipuzkoan, 2018/2019 ikasturtean harrera-egoitzetan artatutako 15-17 urte bitarteko nerabeen matrikulazio-tasa aztertuz, eta EAEko⁷ adin bereko nerabeekin alderatuz, garbi ikusten da nola EAEko nerabe gehienek Batxilergoko ikasketak egiteko hautua egiten duten eta harrera-egoitzetan artatutako nerabeek, aldiz, Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroetara (OLHZ) joatekoa. Beheko grafikoetan (1., 2. eta 3. grafikoak), xehetasun handiagoarekin ikus daitezke osatzen dituzten ibilbide akademikoen arteko desberdintasunak (ikus grafikoak) [35]:

15 urterekin



1. grafikoa. Harrera-egoitzetako eta EAEko 15 urteko nerabeen matrikulazio-tasa. 2018/2019 ikasturtea.


⁶ Azterketa konparatiboa egin ahal izateko EAEko datuak Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioi Estadística eta Azterlanen Zuzendariorde Nagusiak (2020) argitaratutakoak baliatu ditugu. <http://ntic.educacion.es/cee/informe2018/i18e107.pdf>.

⁷ Azterketa konparatiboa egin ahal izateko EAEko datuak Eustat - Euskal Estadística Erakundeak emandakoak dira: Eustat (2020).

EAEko 15 urteko ikasleen datuak kontuan izanik, bai EAEko bai harrera-egoitzetako nerabeen artean, DBHko ikasketak dira nagusiak, % 97,1 eta % 70,9 ehunekoekin, hurrenez hurren. Bestela ere, badaude OLHZetara bideratzen direnak. EAEko gazteen % 2,5ek ibilbide profesionalizatzaile hori aukeratu du; aldiz, artatutako gazteen kasuan, ehuneko hori nabarmen altuagoa da: % 21,8. Kontuan hartu behar dugu OLHZko ikasketak amaitzeak ez duela DBHko titulurik bermatzen.

16 urterekin, EAEko ikasle gehienak Batxilergoko ikasketetara bideratzen dira; zehazki, % 64,6. Harrera-egoitzetan artatutako adin berekoen artean, aldiz, % 1,6k besterik ez dute ibilbide hori aukeratzen. Azken horien artean, OLHZak dira ohikoenak; konkretuki, % 59,7 daude horietako batean matrikulatuta.

16 urterekin




2. grafikoa. Harrera-egoitzetako eta EAEko 16 urteko nerabeen matrikulazio-tasa. 2018/2019 ikasturtea.

17 urteko gazteen joera 16 urtekoenen antzekoa da. EAEko ikasleen gehiengoak, % 68,5ek, Batxilergoko ikasketak egiten ditu, eta, harrera-egoitzetan artatuta dauden artean, soilik % 8k. Azken horien artean, OLHZko ibilbide profesionalizatzailea da ohikoena; zehazki, % 56k hautatzen dute. EAEkoen artean, aldiz, OLHZak ez dira % 8,1 besterik.

Ez dugu ahortzi behar nerabeek 18 urte betetzen dituztenean harrera-egoitzak utzi eta beren kabuz bizitzen hasi behar izaten dutela eta epemuga horrek askotan lanbide bat bilatzera «bideratzen» dituela. Bestalde, babes-sistemaren irteerak zaildu egiten digu jakitea gazte horietako zenbat helden diren zehatz-mehatz unibertsitatara, nahiz eta pentsa daitekeen gutxi batzuk iristen direla.

17 urterekin



3. grafikoa. Harrera-egoitzetako eta EAEko 17 urteko nerabeen matrikulazio-tasa. 2018/2019 ikasturtea.

Babes-sistematik datozen gazteen ibilbide akademikoei buruz egindako ikerketetan, beti egiaztatu da unibertsitatera sartzen diren gazte tutelatutako ohien tasa oso baxua dela [30, 28, 36, 37]. Adibide batzuk plazaratuz, 2009an, Erresuma Batuan, tutelatutako ohien % 9 heldu ziren unibertsitatera, baina 2003an soilik % 1 [28]; Australian, % 5 [35], eta, Espainian, % 4 [37] edo % 5 [16]. Ehuneko horiek oso baxuak dira babes-neurririk ez duten ikasleekin alderatzen badugu; EAEn, 2018/2019an, % 33,8k unibertsitate-ikasketak egin zituzten [38].

Hainbat egilek [30] adierazi dutenez, tutoretzapean egon diren gazteek goi mailako ikasketak egin ahal izateko, laguntza ekonomiko, praktikoa eta emozionala izaten jarraitu beharko lukete 18 urteetatik haratago. Bideanbar, hezkuntza- eta komunitate-politiken erreforma bat egitea ongi legokeela ere adierazi dute zenbait autorek [30], hala nola haiengan dauden itxaropenen inguruan hausnartzea edota kolektibo hori unibertsitate-tasak ordaintzetik salbuestea.

Beste autore batzuek [28] zenbait faktore lagungarri proposatu dituzte gazte horiek ikasten jarraitu eta goi mailako ikasketak egin ditzaten, hala nola: a) denboran mantentzen den erreferentziatzko heldu bat ondoan izatea, b) artatzen duen egoitzak eremu akademikoari lehentasuna ematea, c) derrigorrezko ikasketen ondorengo ikasketak egiteko motibatzea, gaztearen lehentasunen eta etorkizuneko asmoen arabera, d) hezitzaileek eremu akademikoarekin inplikazio handia izatea, e) gaztearekiko itxaropen handiak izatea, f) bai hezitzaileek bai irakasleek ikasketen balioa transmititzea, g) institutuaren inplikazioa, gazteak, zailtasun-egoerak direla eta, ikasketak

bertan behera utz ez ditzan, h) etxebizitzarako laguntza-zerbitzuak, ikasten jarraitzeko bekak eta laguntza pertsonalizatua, familia baten laguntzarik gabe helduarorako trantsizio batek sorraraz ditzakeen beldurra eta segurtasun eza arintzeko.

4. ARRAKASTA PROGRAMA: AUKERA-BERDINTASUNA GOI MAILAKO HEZKUNTZAN

4.1. Sorrera eta martxan jartzea

GFAk babes-sisteman artatutako haur eta nerabeen hezkuntza-ibilbi-deak aztertzea helburu zuen doktorego-tesi baten harira sortu zen Arrakasta programa. Helburu horren erantzunaren bila, landa-lanean aurki agertu ziren babes-sistemak zein jendarteak erantzun beharreko bi erronka: babes-sisteman artatuta dauden haur eta nerabeek goi mailako unibertsitate-ikasketak egiteko zuten aukera-berdintasunik eza eta haien maila akademiko baxua. Askotariko faktoreengatik (historia familiarra, itxaropen positiboak, motibazioa, laguntza ekonomikorik eza, 18 urte bete eta modu independentean bizi behar izana, beste faktore askoren artean), oso gazte gutxi egin zuten unibertsitatera joatearen aldeko hautua; gehienek «nahiago» zuten iraupen gutxiagoko ikasketak egin, aurreko atalean ikusi dugun bezalaxe. Historia akademiko ona dutenen artean ere, gazte gehienek ez dute unibertsitatea ikusten aukera posibleen artean. Kolektibo horrentzat, 18 urte betetzea mugarri bat da, beren adingabetasunaren estatusa aldatzen baita; 18 urte bete, eta, automatikoki, Aldundiak, Estatuak eta bestelakoek haien gainean duten erantzukizuna desagertzen da, eta, bat-batean, «helduaro»ak eskatzen dituen konpetentzia, erreminta edota erantzukizunei aurre egin behar diete, horretarako prest egon ala ez. Melendrok [40] definitzen dituen bezalaxe, «gazte helduak» dira. Haien adineko gazteak ez bezala, gehienek:

- Ez dute aukerarik beren familiako kideekin bizitzeko.
- Ez dute laguntza ekonomiko nahikorik jasotzen unibertsitate-ikasketak bukatu arte.
- Gizarteratze-etxe bat edo Aldundiko laguntza ekonomiko bat jasotzen dute, baina ez dakite unibertsitate-gradua bukatu arte mantenduko zaien. Etxe horretan bizitzeko epea edo laguntza ekonomikoa bukatzen bazaie, ordu kopuru handiko lanaldi bat bilatu behar dute beren gastuak ordaindu ahal izateko (ikasketak amaitzea arriskuan jarriko luke horrek).

Egoera horri aurre egiteko, eta UPV/EHUra heldu ziren ikerketako parte-hartzaileei irtenbide bat emateko asmoarekin, egoeraren berri eman ziztzaion UPV/EHUko arduradunari; zehazki, Berrikuntzaren, Gizarte Kon-

promisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeari. Egoerari irtenbide bat bilatzeko asmoarekin, pertsona-talde txiki bat lanean hasi zen; hauek mandako egoerak aztertu, UPV/EHUK haiei laguntzeko zituen laguntza-baliabideak aztertu, eta, batez ere, egoera hori unean uneko arazo bat konpontzetik harago zihoala ulertu zuen. Gazte horiek unibertsitate-ikasketak modu arrakastatsuan bukatzeko, beharrezkoa zen blindaje bat, eta, horretarako, GFaren laguntza eta koordinazioa ezinbestekoak ziren.

UPV/EHUK egin zituen solaskidetza-lanak, eta GFA hasieratik bai-
kor agertu zen bi instituzioek beren gain hartu beharreko erantzukizunekin. Erantzukizun horiek programa batean gorpuztu ziren, helburu argi batekin: babes-sistematik ateratako gazteek euskal hezkuntza-sistemaren barnean arrakasta akademikoaren maila gorenera heltzeko modua bultzatzea; hor-
tik datorkio programari Arrakasta izena. Nola bermatu gazte horiek ikaske-
tak modu arrakastatsu batean bukatzea? Politika proaktibo bat erabiliz, eta GFaren eta UPV/EHUn arteko zubiak ezarriz eta alde bien baliabideak koordinatuz. Zubi horien indartzeak eta elkarlanak gazte horien hezkuntza-
ibilbideen bermea eta haien jarraipena, aukera-berdintasuna eta hezkuntza
inklusiboa ziurtatzea ekarriko du.

4.2. Instituzioen konpromisoa

4.2.1. UPV/EHU

UPV/EHUK bere gain hartzen du harrera- eta jarraipen-programa bat ezartzeko konpromisoa, gazte horietako bat unibertsitatean matrikulatzen den unetik beretik martxan jartzen dena. Bi eratako baliabideak erabiltzen ditu blindaje horretan laguntzeko: logistikoak eta akademikoak.

- Laguntza logistikoari dagokionez, gazteak unibertsitatara iristean, harrera-prozesu bat jartzen da martxan. Hori Ikasleen Argibide Zerbitzuko teknikarien eskutik egiten da, zeinek UPV/EHUn zerbitzuen berri ematen dieten eta Eusko Jaurlaritzaren eta beste adminis-
trazio batzuen bekak eskatzen laguntzen eta haien jarraipena egiten laguntzen dien. Momentu honetan, 4 teknikari daude, bat campus bakoitzeko.⁸
- Laguntza akademikoari dagokionez, hezkuntza-ibilbidean jarraipen akademikoa bere gain hartuko duen tutore bat esleitzen zaie, laguntza-programa baten bitartez.

Aipatu beharra dago UPV/EHUK funts bat sortu zuela 2017an, era ho-
rretako unibertsitate-ikasketen gastuei laguntzeko. Halaber, 2018an, UPV/
EHUK eta SM Fundazioak lankidetza-hitzarmen bat izenpetu zuten, «Uni-

⁸ Donostia, Gasteiz, Leioa eta Bilbo.

bertsitate-inklusionarako SM Fundazioa bekak» finantzatzeko, Arrakasta programako ikasleei laguntze aldera. Laguntza ekonomiko horiekin, ikasleei ordenagailu-maileguak, eskola-materiala, fotokopiak, bazkaltzeko bonuak, eta unibertsitatera sartzeko ebaluazio-proba egiteko tasen, master profesionalen matrikularen edota unibertsitate-tituluak eta espedienteak emateagatik tasen ordainketa, besteak beste.

4.2.2. *Foru-aldundiak*

EAEko foru-aldundiei dagokienez, desberdintasun nabariak daude haien artean. Bestela ere, instituzio horiek neurri desberdinak aktibatu dituzte kolektibo horretako ikasleen arrakasta akademikoa gauzatu dadin. Gipuzkoan, kasurako, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak sistematikoki biltzen ditu 16 urtetik aurrera harrera-egoitzetako neurri baten pean dauden pertsonen hezkuntza mailari eta hezkuntza-ibilbideari buruzko datuak, etorkizunean Arrakasta programan zer gaztek parte har dezaketen jakin ahal izateko. Blindajea gauzatzen duten laguntzen artean, honako hauek azpimarratu daitezke: dirulaguntza edo gizarteratze-etxe bat unibertsitateko ikasketak egiten ari diren bitartean akonpainamendu soziohezitzailea, laguntza psikologikoa edo diru kopuru bat ezartzea Eusko Jaurlaritzaren biken osagarri gisa ikasketen gastuei aurre egiteko, besteak beste.

4.3. **Programaren eboluzioa**

Programak Gipuzkoa du sorleku, baina Arabako eta Bizkaiko lurraldeetara ere hedatu da, Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzari esker. Bietan, GFAn garatutakoaren antzeko eskemari jarraitu zaio, ñabardurak ñabardura.

Datuei erreparatuz, taula honetan ikus daitekeen bezala (2. taula), 2017/2018 ikasturtean, programa martxan jarri zen ikasturtean, 7 ikaslek parte hartu zuten Gipuzkoan, eta, azken urte honetan, 2021/2022 ikasturtean, 35 ikasleek parte hartzen dute hiru probintzietan. Aipatu beharra dago 8 ikaslek goi mailako ikasketak modu arrakastatsuan bukatzea lortu dutela programa hasi zenetik.

2. taula. Programaren eboluzioa.

Foru-aldundia	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022
Araba	0	1	2	4	7
Bizkaia	0	0	5	10	16
Gipuzkoa	7	13	12	18	12
Guztira	7	14	19	32	35

Genero-irakurketa bat eginez gero, nabarmentzekoa da Arrakastako ikasle ia guztiak neskak direla (bi izan ezik). Ez da kasualitatea.

Ikus daitekeen bezala, babes-sisteman artatutako oso gazte gutxi heltzen dira unibertsitatera; hori ez da zorizko zerbait, baizik eta hainbat faktoreren nahasketaren ondorioa, ikasteko aukera-desberdintasuna leku pribilegiatu batean mantentzen baita.

Azpimarratzekoa da programa aurrerakoia dela oso; orain arte ez da martxan jarri beste inongo unibertsitatetan, eta, egun (2021), Espainiako beste bi unibertsitatetan (La Lagunan eta Madrilgo UNEDen) eta Kantabriako Gizarte Politiketako Departamentuan ari dira eredu hori martxan jartzen.

4.4. Programan parte hartzen duten ikasleen pertzepzioak

2019an, Ikasleen Argibide Zerbitzuko teknikariarekin harremanetan jarri ginen, Arrakasta programan parte hartzen zuten ikasleekin bitartekaritza-lana egiteko eta ikasleek programari buruz zituzten lehen pertzepzioak ezagutzeko. Programak eskaintzen zienari eta beste pertsona batzuek duen edo izan dezakeen eraginari buruzko pertzepzioei buruz galdetu nahi genien. Horretarako, elkarrizketa-gidoi bat prestatu genuen, lau galderaz osatua:

- a) Uste duzu programa beharrezkoa dela?
- b) Zer eskaintzen/ematen dizu Arrakasta programak? (Bururatzen zai-zuen guztia) Eta beste pertsona batzuei?
- c) Zer eragin/intzidentzia izan dezake programak beste pertsona batzuek?
- d) Zure ustez, nahikoa al da Arrakasta programa zure unibertsitate-ikasketak arrakastaz bukatu ahal izateko? Zer gehiago beharko zenuke?

Zenbait errekrutatze-saiakera egin eta gero, programan parte hartzen duten lau ikasle elkarrizketatzea lortu genuen. Nahiz eta kopuru txikia izan, haien esperientzia jasotzea oso baliagarria da; izan ere, gazte horietako oso gutxi heltzen dira unibertsitatera, eta zaila da haiek aurkitzea. Kontuan izan behar dugu, gainera, pertsona horiek beren bizi-historia eta egunerokotasuna kontatzen pasatu dutela beren bizitzaren parte txiki-handi bat eta unibertsitatera heltzen direnean bizitza normalizatu bat egin nahi dutela, beren iraganeko historiari (eta horrek dakarren guztiari) erreparatu gabe.

Elkarrizketatutako lau ikasleen ezaugarriei dagokienez, denak neskak ziren, eta 18,75 urteko adina zuten batez beste. Babes-sisteman egon ziren batez besteko denbora 4,75 urtekoa izan zen, eta, elkarrizketa egin zen mo-

mentuan, bi gazte GFako gizarteratze-etxeetan bizi ziren, eta beste biek bazuten dirulaguntza bat. Ikasten ari ziren unibertsitate-graduaren espezialitateari dagokionez, bata gizarte-langintza ari zen ikasten, bestea zuzenbidea, hirugarrena gizarte-hezkuntza, eta azkena itzulpengintza eta interpretazioko gradua.

Bi gazteren kasuan, aurrez aurre egin genuen elkarrizketa, eta, beste bietan, posta elektronikoz.

4.4.1. *Elkarrizketen emaitzak*

Programan parte hartzen duten ikasleen lehen pertzepzioek argi uzten dute programa beren goi mailako ikasketak «blindatzera» baino haratago doala. Planteatutako galderei erantzunez:

Lehenengo eta bigarren galderak estuki lotuta zeudenez, batera erantzun zituzten. Programak *zer ekarpen* egiten zien erantzunez, «ekarpen asko»⁹ (Ixiar)¹⁰ egiten zituela aipatu zuten, baita «guztiz beharrezkoa» zela ere (Maria). Beren unibertsitate-ibilbidea osatzeko egindako ekarpenei dagokionez, gazteek hauexek aipatu zituzten: «lasaitasuna» (Ixiar), «segurtasuna» (Sandra), «gure kolektiboaren ikusgarritasuna» (Lucia), «unibertsitateko teknikariarengandik jasotzen dudak laguntza eta orientazioa, nora jo behar dudak jakitea» (Sandra) edota «eskola-materialaren ordainketa eta baita campuseko jangeletako janari-bonuak» ere (Sandra). Beste gazte batzuk, Mariak, aukera-berdintasunaren ekarpena azpimarratu zuen. Haren hitzak berreskuratuz:

Harrera-egoitza batetik ateratzen garenez, muga asko ditugu unibertsitate-ikasketak egiteko (batez ere ekonomikoak), eta Arrakastak aukera ematen digu gainerako ikasleek bezalaxe unibertsitate-ikasketak egiteko. Eskola-material guztia ematen digute (liburuak, fotokopiak, ordenagailuak...), eta beste zerbitzu batzuk izateko aukera eskaini ere bai, hala nola unibertsitateko jangela. (Maria)

Hirugarren galderari helduz, hots, programak *beste pertsona batzuegan edota beste testuinguru batzuetan izan dezakeen eraginaren* inguruan galdetu zitzaielarik, gazteen erantzunek hiru alderdi nabarmentzen zituzten; izan ere, gazteetako batek aipatzen zuen bezalaxe, Arrakastak «jende askori gauza asko transmiti diezaioke» (Ixiar).

Nabarmendu zuten lehenengo alderdia hauxe da: harrera-egoitzetan dauden haur eta nerabeei unibertsitate-ikasketak egiteko aukera emango

⁹ Elkarrizketak gaztelaniaz izan ziren. Geuk itzuli ditugu euskarara.

¹⁰ Izen guztiak ezizenak dira, gazteek proposatuak.

diela, eta baita ibilbide akademiko horrekin jarraitzera animatu/bultzatu ere. Haien hitzei erreparatuz:

Itxaropen-ale txiki bat da unibertsitate-ikasketak egiteko asmoa duten tutoretzapeko pertsonentzat. (Lucia)

Egin ahal izango duzula sinestea, zerbait gehiago dagoelako ideia izatea... Niri oso garrantzitsua iruditzen zait txikia zarenetik jakitea Oinarrizko Lanbide Heziketaz aparte badaudela beste ibilbide akademiko batzuk, ez dela soilik Oinarrizko Lanbide Heziketa. Badaudela Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo Goi Mailakoa... Baina unibertsitatera hel daitezkeela ere transmititu behar zaie, eta Arrakasta programak berebiziko garrantzia du horretarako. (Ixiar)

Azpiamarratutako bigarren alderdiak harrera-egoitzetako hezitzaile-taldeei egiten die erreferentzia; zehazki, haien orientabideei. Gazteen aburuz, artatuta dauden haur eta nerabeak hezkuntza-ibilbide jakin batzuen alde egitera «behartzen» dituzte hezitzaile-taldeek. Adin-nagusitasunaren mugarrria dela-eta egoitzatik ateratzen direnean ahalik eta «prestatuen» egon behar dutela argudiatuta, gizarte-hezitzaileen taldeek transmititzen duten mezuak hezkuntza-ibilbide motz eta profesionalizatuen alde egitera bideratzen ditu. Gazteen ustez, Arrakasta programak isla izango du orientabideetan, unibertsitatea ere aurreikusiko baita orientabide posible horien artean. Horrek eragina izango luke esku-hartze osoan (hezkuntza-eremuaren lehentasuna, espektatibak, exigentzia...). Gazteetako batek honela kontatzen zuen:

Beren ikasketetan ahalegintzen diren eta 18 urte betetzean beren ikasketekin jarraitu nahiko luketen gazte askok unibertsitatean sartzea lortzea, eta, horrela, lana azkar bilatzera eta beren formakuntza ahaztera behartuta ez egotea. (Sandra)

Hirugarren alderdiari dagokionez, programak jendartean izango luke eragina; zehazki, jendarteak kolektibo horri egotzitako irudi zein errepresentazio sozial negatiboak deseraikitzen lagundu dezake.

Arrakasta programarekin, agerian geratzen da badagoela jendea gehiagora iristen dena edo unibertsitatean ikasten ari dena edo dena delakoa, eta ez direla soilik ezer egiten ez dutena pertsonak, delitugileak. (Ixiar)

Azkeneko galderari erantzunez, hots, *nahikoa al da Arrakasta programa zure unibertsitate-ikasketak arrakastaz bukatu ahal izateko? Edo zer gehiago beharko zenuke?*, gazteek bi hobekuntza-proposamen egin zituzten, biak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zuzenduta. Lehen-

goa, batetik, Arrakasta programa goi mailako ikasketa guztietara zabaldu beharko litzatekeela, eta ez soilik unibertsitate mugatu, eta bigarrena, ta-setatik salbuetsita egon beharko lukeen kolektiboaren aitortza. Aitortza horrek askotariko baldintzetan dauden kolektiboen aintzatespena ekarriko luke, eta aukera-berdintasuna bermatuko.

5. ONDORIOAK

Testu honetan, babes-sisteman dauden haur eta nerabeen hezkuntza-eremua mahaigaineratu dugu, baita osatzen dituzten ibilbide akademikoak azaldu ere. Alderdi horiek agerian uzten dute unibertsitatea ez dagoela haur eta nerabe horien helmuga akademikoetan. Dena den, badaude unibertsitate heltzen diren gutxi batzuk, eta, horren harira, Arrakasta programa aitzindaria azaldu dugu, zeinak «blindatzea» baitu helburu, ikasle horiek unibertsitateko hezkuntza-ibilbidea arrakastaz egin ahal izateko. Artikuluan frogatuta geratu den bezala, programa goi mailako ikasketen «blindatzea» baino haratago doa, itxaropena sortzen du, bai eta halaber artatutako haur eta nerabeen mugak hautsi eta askotariko agenteen ikuspegi, itxaropen eta zerumugak aldatu ere, eta, garrantzitsuen, hezkuntza inklusiboa eta aukera-berdintasuna bermatzen ditu.

Babes-sistematik ateratzen direnen ibilbide akademikoen atzean, faktore askok hartzen dute parte; ez ditugu artikulu honetan azalduko, baina, edozein modutan, hezkuntza- eta gizarte-politiken egokitasunari buruz hausnartzera eta gure gizarte-erantzukizuna birplanteatzera garamatzate. Erantzukizuna ez da erakunde baten edota profesional-talde baten zeregina, zeregin amankomuna da, eta norabide berean arraun egiten duten eragileek koordinazioa eta lankidetzak eskatzen dituen. Arrakasta da erantzukizun amankomun horren eredu.

Artikulu honetan, hezkuntza-aukera desberdintasunean dauden haur, nerabe eta gazte konkretu batzuen inguruan aritu gara, baina ez dira bakar-rak. Arrakasta programa aukera-berdintasuna lortze aldera sortu zen, baina asko dira, zoriturrez, aukera-desberdintasun egoeran daudenak. Haien aldeko apustua da hezkuntzaren benetako erronka eta hizpidera ekarri dugun GIHaren esentzia: guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak eskaintzen dituen.

ESKER ONA

Artikulu hau UPV/EHUK finantzatutako doktorego aurreko dirulaguntza bati esker idatzi da. Dirulaguntza hori gabe ez litzateke hezkuntza-aukeren berdintasuna bultzatzen duen programarik jaioko. Beste alde bate-

tik, esker ona adierazi nahi diegu Gipuzkoako Foru Aldundiko Harrera Egoitzen Sareari, UPV/HUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetzari eta SM Fundazioari, programa hauetan egindako apustu eta ekarpenengatik.

BIBLIOGRAFIA

- [1] UPV/EHU. (2017). UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula. EHUagenda 2030en jarraipena. <https://www.ehu.eus/documents/4736101/11938005/EHUagenda2030-Indikatzaile-panela.pdf/bc6dbf30-a785-1ca6-9660-77a0701e168a?t=1559661787000> [Sarrera-data: 2020ko irailaren 20a].
- [2] NAZIO BATUAK. 2015. Objetivos de desarrollo sostenible. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/education/> [Sarrera-data: 2020ko irailaren 20a].
- [3] UNICEF. 2019. *Para cada niño, reimaginemos un mundo mejor. Informe Anual de UNICEF 2019* <https://www.unicef.org/media/71156/file/UNICEF-informe-anual-2019.pdf> [Sarrera-data: 2020ko irailaren 4a].
- [4] TOMAŠEVSKI, K. (2004). *El asalto a la educación*. Intermon Oxfam, Barzelona.
- [5] TOMAŠEVSKI, K. (2005). El derecho a la educación, panorama internacional de un derecho irrenunciable. In L. M. NAYA (ed.). *La educación y los derechos humanos* (63-90). Erein, Donostia.
- [6] TOMAŠEVSKI, K. (2006). Dulces palabras, amargos hechos: el panorama global de la educación. In NAYA, L.M. eta DÁVILA, P. *El derecho a la educación en un mundo globalizado*, (21-43). Erein, Donostia.
- [7] BEITER, K. D. (2005). *The protection of the right to education by international law: Including a systematic analysis of article 13 of the International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights*. Martinus Nijhoff Publishers, Boston.
- [8] DÁVILA, L.M., NAYA, L.M. eta ZABALETA, I. (2008). «Hezkuntza-eskubidearen eremuko Europa mailako azterketa erkatua». *Tantak* (39). 7-33.
- [9] DÁVILA, P. eta NAYA, L.M. (2011). *Derechos de la infancia y educación inclusiva en América Latina*. Granica, Buenos Aires.
- [10] JACKSON, S., eta MARTIN, P. Y. (1998). «Surviving the care system: education and resilience». *Journal of adolescence*, **21**(5), 569-583.
- [11] FERNÁNDEZ DEL VALLE, J. eta FUERTES ZURITA, J. (2000). *El acogimiento residencial en la protección a la infancia*. Pirámide, Madril.
- [12] SUBIRATS, J. (2004). *Pobreza y exclusión social*. Fundación La Caixa. http://ioc.xtec.cat/materials/FP/Materials/1753_ISO/ISO_1753_M01/web/html/WebContent/u1/media/pobreza_y_exclusion_social_analisis_realidad_espanola_y_europea_igop.pdf. [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [13] MALLON, J. (2007). «Returning to education after care: protective factors in the development of resilience». *Adoption & Fostering*, **31**(1), 106-117.

- [14] EUSKO JAURLARITZA. (2020). Agindua, 2020ko ekainaren 16koa. Hezkuntzako sailburuarena. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002567e.shtml> [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [15] STEIN, M. (2005). «Young people aging out of care: The poverty of theory». *Children and Youth Services Review*, **28**(4), 422-434.
- [16] MONTSERRAT, C. eta CASAS, F. (2010). «Educación y jóvenes ex-tutelados: revisión de la literatura científica española». *Educación XXI*, **13**, 117-138.
- [17] ZAMORA, S. eta FERRER, V. (2013). «Los jóvenes extutelados y su proceso de transición hacia la autonomía: una investigación polifónica para la mejora». *RES Revista de Educación Social*, **17**, 1-17.
- [18] LÓPEZ, M., SANTOS, I., BRAVO, A., eta DEL VALLE, J. (2013). «El proceso de transición a la vida adulta de jóvenes acogidos en el sistema de protección infantil». *Anales de psicología*, **29**(1), 187-196.
- [19] DIXON, J. (2016). «Opportunities and challenges: supporting journeys into education and employment for young people leaving care in England». *Revista Española de Pedagogía*, 13-29.
- [20] MELENDRO, M. (zuz.). (2016) *Jóvenes sin tiempo: Riesgos y oportunidades de los jóvenes extutelados en el tránsito a la vida adulta*. https://www.researchgate.net/publication/320595864_Jovenes_sin_tiempo_Riesgos_y_oportunidades_de_los_jovenes_extutelados_en_el_transito_a_la_vida_adulta_Investigacion_Young_people_without_time_Risks_and_opportunities_of_the_extutlated_youth_into_the_. [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [21] SÁNCHEZ VALVERDE, C. ETA JIMÉNEZ, J.F. (2011). La emancipación como eje inspirador y articulador de una acción socioeducativa global con la infancia y la adolescencia. El «espacio joven Cabestany», un ejemplo de buenas prácticas en educación social. <http://www.cite2011.com/Comunicaciones/Familias/48.pdf> [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [22] MONTSERRAT, C., CASAS, F. eta SISTERÓ, C. (2013). Estudi sobre l'antenció als joves extutelats: Ecolúció, valoració i reptes de futur. Informe de resultats. Generalitat de Catalunya. http://treballiaferssocials.gencat.cat/web/.content/01departament/08publicacions/coleccions/eines/num_21/Eines-21-tot.pdf [Sarrera data: 2020ko urriaren 1a].
- [23] SALA-ROCA, J., BIARNÉS, A. V., GARCÍA, M. J., ETA SABATES, L. A. (2012). «Socialization process and social support networks of out-of-care youngsters». *Children and Youth Services Review*, **34**(5), 1015-1023.
- [24] INJUVE. (2017). «Jóvenes y vivienda». *Revista de Estudios de Juventud*, **(116)**, 5-192.
- [25] CASAS, F. eta MONTSERRAT, C. (2009). «Sistema educativo e igualdad de oportunidades entre los jóvenes tutelados: estudios recientes en el Reino Unido». *Psicothema*, **21**(4), 543-547.
- [26] TILBURY, C. (2010). «Educational status of children and young people in care». *Children Australia*, **35**, 7-13.
- [27] PANCHÓN, C. (2001). *Situación de menores de 16 a 18 años en centros de protección*. Dulac, Bartzelona.

- [28] MONTSERRAT, C., CASAS, F., MALO, S., eta BERTRAN, I. (2011). *Los itinerarios educativos de los jóvenes extutelados*. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, Madril.
- [29] MONTSERRAT, C., CASAS, F. eta BAENA, M. (2015). *L'educació dels infants i adolescents en el sistema de protecció. Un problema o una oportunitat?* Documenta Universitaria, Girona.
- [30] MARTIN, P. Y. eta JACKSON, S. (2002). «Educational success for children in public care: Advice from a group of high achievers». *Child & Family Social Work*, 7(2), 121-130.
- [31] MONTSERRAT, C., CASAS, F. eta BERTRÁN, I. (2013). «Desigualdad de oportunidades educativas entre los adolescentes en acogimiento residencial y familiar». *Infancia y Aprendizaje*, 36(4), 443-453.
- [32] LÓPEZ, M. L., DEL VALLE, J., MONTSERRAT, C. eta BRAVO, A. (2010). *Niños que esperan: Estudio sobre casos de larga estancia en acogimiento residencial*. Osasun eta Gizarte Politika Ministerioa, Madril.
- [33] MIGUELENA, J. (2019). Los derechos de las niñas, niños y adolescentes atendidos en recursos residenciales de acogida de programas básicos de Gipuzkoa: representaciones sociales y propuestas de mejora. (Doktoretza-tesia). UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/42533> [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [34] GONZÁLEZ, P. (2018). El Acogimiento Residencial Infantil en Tenerife: perfiles atendidos, programas de intervención y evaluación de resultados (Doktoretza-tesia). Universidad de la Laguna, La Laguna. <https://riull.ull.es/xmlui/handle/915/9446> [Sarrera-data: 2020ko urriaren 1a].
- [35] CASHMORE, J., PAXMAN, M., eta TOWNSEND, M. (2007). «The educational outcomes of young people 4-5 years after leaving care: An Australian perspective». *Adoption & fostering*, 31(1), 50-61.
- [36] HARVEY, A., ANDREWARTHA, L. eta MCNAMARA, P. (2015). «A forgotten cohort? Including people from out-of-home care in Australian higher education policy». *Australian Journal of Education*, 59(2), 182-195.
- [37] FEDERACIÓ D'ENTITATS AMB PROJECTES I PISOS ASSISTITS. (2017). Memòria 2016. Bartzelona: FEPA i Diputació de Barcelona. Hemen eskuragarri: https://www.fepa18.org/wpcontent/uploads/2013/10/Memoria_FEPA-cat2016.pdf [Sarrera-data: 2018ko otsailaren 20a].
- [38] MELENDRO, M. (Zuz.). (2007). *Estrategias educativas con adolescentes y jóvenes en dificultad social. El tránsito a la vida adulta en una sociedad sostenible*. UNED, Madril.
- [39] MIGUELENA, J., DÁVILA, P., eta NAYA, L.M. (2018). Éxito universitario en el País Vasco: el programa Arrakasta. In *XVI Congreso Nacional Educación Comparada Tenerife Educación e Inclusión: Aportes y perspectivas de la Educación Comparada para la Equidad* (433-442). La Lagunako Unibertsitatea, La Laguna.
- [40] MIGUELENA, J. GARMENDIA, J., NAYA, L.M. eta DÁVILA, P. (2020). «IkasLagun Posta. Una iniciativa de refuerzo académico en los recursos residenciales de Gipuzkoa tras el COVID 19». *Sociedad e Infancias*, (4), 187-190.